

**AKTA
(2017/02)****EUSKERA AHOLKU BATZORDEA**

Bilkura:	Ohikoa
Data:	2017ko apirilak 6
Lekua:	Gaztelekua (Kultur Etxea)
Hasiera-ordua:	19:05
Amaiera-ordua:	20:50

Etorritakoak:

Batzordeburua: Juan Karlos Agirre
Beralagun eta Sagrado Corazon ikastetxeko guraso elkarte – Marimar Hernandez
Bermeoko hizkuntza eskola – Miren Unzueta
Besalde – Anabel Alegria
Eleizalde ikastola – Lexuri Markina
Eleizalde ikastolako gurasoen sarea – Eneritz Ruiz
Erroxape – Marijose Lopez eta Mertxe Ugalde
Eskubaloi taldea – Ines Arregi
Sagrado Corazon Ikastetxea – Asier Abaroa
Salica – Aintzi Laburu
Zinegotzia – Jon Goikolea
Zinegotzia – Idoia Platas
Zinegotzia – Alazne Zumeta

Ezin etorria adierazi dute:

AEK – Iratxe Garmendia
Herri ikastetxeko guraso elkarte – Xabier Uriagereka
Batun batun aisialdi elkarte – Maite Atxikallende eta Olatz Perez
Bermeoko osasun etxea – Iratxe Lamikiz
Berton – Amaia Galvan
MB2000 aisialdi elkarte – Maribi Larrinaga
Euskeraz Berbetan – Albert Zarate
Kultura Saila – Susana Regidor
Hitza – Olaia Zabalondo
Sareginek – Yaiza Goikoetxea
Zinegotzia – Benito Ibarrolaza

Teknikari aholkulariak: Maite Alvarez eta Maddi Etxebarria

Idazkaria: Maite Alvarez



Aztergaiak

1.- Aurreko akta irakurri eta onetsi

Ez da egin ezelako iruzkinik eta akta onetsita geratu da.

2.- Laburrean

- *Geuk eus* bideo-photocall-a ikastetxeetan
 - Ikastolan martxoaren 12an. Euria zela eta, bertan behera utzi behar izan zen
 - Herri Ikastetxean maiatzaren 7an
 - Arrain Azokan maiatzaren 19, 20 eta 21ean. Batzordekideen laguntza eskatuko da.
 - Sagrado Corazonen maiatzaren 27an
- *Bermeo eta Ondarroa. Hizkuntzaren garapenean eragiten duten faktoreak* azterlana
Aurreikusi zen moduan, batu dira hiru eztabaida-taldeak, adinaren arabera, galdetegi zabaldu da eta lau elkarrizketa sakonak egin dira. Orain, jasotako datu eta informazio guztia lantzen ari dira UEMAKo teknikariak.
 - Eztabaidarik mamitsuena, helduen taldean izan da
 - Gazteengana heltzea zailagoa izan da
 - Gai klabeak identifikatu dituzte hiru taldeetan, oso aberasgarria izan da ikuspegi desberdinak entzutea
 - Sare sozialek lagundu dute zabaltzen, erantzuna oso ona izan da, aurreikusita zegoen 384 galdetegi betetzea eta 518 jaso dira, erantzun gehienak, 25-50 urte bitartekoen aldetik etorri da.
 - Zeharka ari gara eragiten
- *Bizentaren lumak* jolasa gazteekin
Lehen ahalegina egin dugu eta dugu izan arrakastarik. Ikastetxeei laguntza eskatuko diegu, Bermesex zerbitzuari ere eta beste ahalegin bat egingo dugu.
- *arNASA txiKITXUAK* ikus-entzunezkoa
Maiatzaren 12aren ordez, maiatzaren 26an izango da ikus-entzunezkoaren aurkezpena. Andoni Barreña hizkuntza-lankidetzarako Garabide Elkarteko lehendakaria etorriko da aurkezpena egiten.

3.- Kirola eta aisialdia euskaraz

Aurreko bileran egindako prototipo biak aurrean ditugula, talde bitan, horietan sakontzea proposatu da hiru galdera nagusiren bidez eta talde bakoitzak esandakoak, hauek izan dira:

Gaur eta hemen kirol eta aisialdi eskaintza ume eta gaztetxoentzat euskaraz izateko,



- Zer egin behar da, nork, noiz, zelan egin behar du?
- Zein dira erronkak eta lehentasunak?
- Bi ekintza zehatz proposatu

Lehenengo prototipoaren ondorioak:

- Bertara joan behar dugu, kirola praktikatzen den gunetara; eta gurasoei galdetu ea euskaraz izatea nahi duten eta beraiek inplikatu horretan, kirol taldea euskalduntzen.
- Horretaz gain, arduradunekin ere landu behar da.
- Udalak hainbat elkarterekin hitzarmenak ditu. Horietan, hizkuntzaren erabileraren jarraipena egin behar da, eta, diru-laguntza ere emaitzaren arabera baldintzatu. Hitzarmenik ez dagoen kasuetan, hitzarmenak egitea komeni da.
- Bestalde, aisialdiari dagokionez, Kafe Antzokiaren eskaintza ere eralduna da, eta, Udaleko eraikina izanik komeniko litzateke horren jarraipena egitea.
- Aisialdi informala euskaldundu behar da.
- Merkataritza gun handiak.
- Kirol taldeak: handienei ekin.
- Kiroldegian, sarri, saioak euskaraz hasi arren, gaztelaniaz amaitzen dituzte.
- Udalak diru gehiago inbertitu euskara sustatzeko
- Gurasoei galdetu ea kirolean eta aisialdian seme-alabek euskara erabiltzea gura duten. Konplizeak topa.

Erronkak eta lehentasunak:

- Tabernetan euskara erabiltzea: musika, telebista, lehen berba
- Kirol talde nagusiekin lan egin: futbol taldea, arraun elkartea, eskubaloi taldea

Ekintzak:

1. Ahalegina egiten dutenak saritu. Sari txikiak, intimoak. Esaterako, umeein euskara erabiltzen duten Pereira eta Miko kantinak.
2. Gutun pertsonalizatua bidali alkateak euskararen alde zerbait egin dutenei eta horrekin batera gozokiren bat, atun lataren bat...
3. Buzoi bat zabaldu herrian, herritarrek proposa dezaten nor saritu. Euskararen alde nabarmendu den urteko pertsonaren bati eman saria, Hegaluze sarian egiten denaren antzera.

Bigarren prototipoaren ondorioak:

- Kirol taldeetan eragin behar da: ez da nahikoa monitore euskaldunak kontratatzearekin, zuzendaritzen lidergoa ezinbestekoa da, irizpide garbia, lehentasuna izan behar da eta horretan eragin. Gainera, balioetan erantsi behar dugu hizkuntza, eta, gurasoak ere horretan inplikatu.



- Kontziente izan behar dugu ez garela hain herri euskalduna. Hizkuntzak norberaren nortasunean egon behar du. Taldeek euskara euren nortasunaren parte balitz moduan hartu behar dute.
- Ekintzak:
 1. Gurasoei begira: sentsibilizazio kanpaina. Erabileraren datuak herrian jarri.
 2. Kirol taldeen zuzeneko jarduna bideo txikietan grabatu, ahotsa batez ere. Eta zuzendaritzan eta gurasoekin landu gaia.
 3. Bideo txikiak, ekintza zehatzekin grabatu herrian, sare sozialen bidez edota zineman zabaltzeko, Bermeon, gure egunerokoan gertatzen dena erakutsi eta ispilu egin.
 4. Kirol taldeek euren balioak landu, ez bakarrik euskararenak

4.- Galderak eta eskariak

Saioaren balorazioa



- Organizazioa
- Taldeko lana
- Jarrera positiboak saritzea
- Ondo labur egin jat
- Danan parte hartzea
- Konkretua izan da
- Oso ideia interesgarriak atara dira
- Ideia konkretuetan oinarrituta egon da
- Kideak euskerarekiko dakoien konpromezua ta elkar lan gogoa
- Bileraren nondik norakoak argi azaltzea, egin beharrekoa zehatz azaltzeak lagundu egiten du zentratzen



- Irizpideak zehatzagoak izan beharra
- Denpora eskasa nire aldetik
- Hurrengoan pikoteoa eta bertoko garagardoa (kantinen dau)
- Ia zertara heltzen gara
- Herriko eragile gehiagoren falta
- Apur bat luze
- Luzeegia izan da
- Luzeegia baina denbora fala
- Luze
- Luzetxu baie fruto seko batzukaz arregla lei

